

LAPSUS, JOSE VICENTE DE ECHEGARAY ZENAZ.—Inoiz gauza harrigarrienak gertatzen zaizkio bibliografia munduan ari denari. Adibidez, Auñamendi Argitaldaria, 1969. urtean *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* deritzan sailean, «Cuerpo B» delakoaren lehen alea kaletaratu zuen *Literatura* izenburuz. Bertan, 609. orritik 612. erako Jose Vicente de Eche garay (1773-1855) zenaren nortasunez eta lanez eskainia dator. Ondo merezia zuen 1832an «Festarik bear bada, bego Donostia...», beste lan askoren artean sortu zuenak.

Baina, hau da parabola, *Enciclopedia* berean, hamar urte geroago, «Cuerpo A» delakoan, *Diccionario Enciclopedico Vasco* (vol. X) tomoan ez dator Eche garaytarren artean, ezta XII. tomoan Etxegarai bezala ere.

Ordenadorea ez erabiltzearen hutsa noski, baina ordenadoreak ere ongi klasifikatu ezik holako hutsak egiten badakite. Hurrengo eraskinen batean osatu beharrezko hutsa, zeren Jose Vicentek horrenbeste merezi zuen.

Donostian, XIX. mendearen lehen partean pertsonaia ospetsua izan zen. Sonatua, egungo donostiarrek esango luketenez. Ez gero pentsa, sonatua, erdarazko «estar sonado»-rekin ezer ikustekorik duenik, ez horixe.

Jose Vicentek, garai haietan berdin idatziko zituen kantak ihauteri konparsentzat edo elizkizunetarako. Horien artean, bere Eguberri kantak zabalkunde handikoak izan ziren.

San Lukas edo San Mateo Ebangelioa ere itzuli zuen, Jose Manterolak zionez, eta L. L. Bonaparte printzearen eskuetara joan zela uste da, baina Printzearen argitalpenen eta eskuizkribuen artean (naiz bereak eta berak bilduak) ez da agertzen, Carlos González Eche garay-k egin ikerketen ondorioz argitaratua den katalogoan (ikus *Catálogo* delakoan, Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaria XXIX, 1984, 23-184 orr.).

Bertso guziak, *Festara* izenburuz, A. Zavalak bildurik Auspoa-n argitara zituen 1964. urtean.